

6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroarekin harremana funtsezkoa da, bezero kontentagaitza proiektua bertan behera utzi dezake eta. Hori kontuan izanda, bezeroarekiko harremani dagokionez, gure helburua harremanak gure bezeroekin oso estuak eta pertsonalizatuak izatea da. Hots, arazoen aurrean eskaini behar dena jakitea eta bezero bakoitzari une bakoitzan behar duena era eraginkorrean, sinplean eta azkarrean ematea haien ulermena errazteko eta haiek aplikazioa arazorik gabe erabil dezaten.

Gainera, telefono bat erabilgarri izango da astelehenetik larunbatera arte, 12:00 eta 20:00 denbora tartean. Jarraitzeko, egoitza nagusira joateko aukera egongo da erabilgarri, arazo bat edukiz gero. Horrez gain, aipatu beharra dago aplikazioaren barnean ere jarraibideak egongo direla arazoren bat gertatuz gero. Beraz, hiru motatako zerbitzua eskaintzen dugu arazo edo galderen aurrean.

Eskaintzen ditugun lau zerbitzuak konkrituak izateko honako hauek dira: laguntza pertsonala, laguntza pertsonal eskainia, autozerbitzua eta zerbitzu automatizatuak.

Izan ere, merkatuan konpetenteak eta indartsuak izateko zerbitzu eta laguntza hauek asko landu eta indartu behar ditugu, bezeroek kalitatea nahiz laguntza azkarra eta ona bilatzen dutela frogatuta baitago. Hortaz, ezinbestekoa dugu hori egitea gure bezeroak fidelizatzeko eta bezero berriak erakartzeko.